

1. DISEINU GRAFIKOA ETA MULTIMEDIA

NEGOZIOAREN DEFINIZIOA

Korporazio-irudiaren diseinua (logoak, anagramak eta web orriak barne), eta multimedia eta ikus-entzunezko materiala egitea.

MERKATU-DATUAK

Nahiz eta oso zaila izan EAEn diseinu grafiko eta multimedian diharduten enpresakopurua zehaztea, ez baitira existitzen ohiko jardueren sailkapenen ondorioetarako, sailkapen horiek estatistikoak (CNAE-93) edo administratiboak izan, ekonomi eta enpresa-jardueraren aldaketa dagoen sailkapenera egokitzen saiatu gara. Honela, Arte Grafikoetako establezimendu gisa 1.291 daude EAEn (CNAE-93; 22) eta informatikazerbitzuetako establezimendu gisa 869 guztira (CNAE-93; 72).

IKEI-k Gipuzkoa eta Nafarroako multimedia-enpresei buruz egindako azterketaren arabera, “ekonomia berriak” ez du oraindik normalean ematen zaion garrantziari buruzko dimentsiorik. Honela, Nafarroan azterturiko enpresen %20k bakarrik dute multimediatzat katalogatzeko moduko jarduera, eta datua %12koa bakarrik da Gipuzkoan, nahiz eta azken honetan datuak bere ñabardura behar duen software-egile garrantzitsuak daudelako, Ikusi edo MCC bezalakoak, eta hauei esker BPGren %4,6 Informazio eta Komunikazioaren Teknologia Berrietatik (IKTB/NTIC) dator. Nafarroan jarduera multimedia duten konpainien %40k publizitatean eta aholkularitzan dihardu, %25ek telekomunikazio eta informatikan, eta %20k edizioan. Horietako askok, %81ek, web orriak egitea dauka bere lan-katalogoan. Dena den, sektore honen tamaina bikoiztu egin da 1993az geroztik Nafarroan eta 1995az geroztik Gipuzkoan. Etorkizunari dagokionez, azterketen arabera, edukiak gaurkotzea da gaitasun handieneko arloa, eta merkataritza elektronikoa askoz epe luzeagorako uzten dute. Txostena enpresei egindako elkarriketetan oinarritzen da, eta Administrazioarentzako gomendioak ere baditu: batez ere, multimediazko edukietan prestatzea eta inbertsioetan laguntzea.

ENPRESA-PLANA

Marketin-plana

□ *Zerbitzuak*

Material inprimatu edo ikus-entzunezkoaren diseinu grafikoa; korporazio-irudiaren garapena enpresa eta erakundeentzat (logoak, anagramak, merkataritza-ikurrak); web orrien diseinua; multimedia-produktuak egitea irakaskuntzarako, katalogo birtualak, aurkezpen-txartelak, irudiz eta soinu animaturiko postal edo gutunak, etab.).

□ *Sustapena*

Sustapen-kanpainak, prentsan iragarkiak, beste web batzuetan iragarkiak, lehiaketa publikoetan parte-hartzea, arlo honetako beste enpresa batzuekin

itunak, etab. dira negozioa ezagutarazteko aukera daitezkeen estrategia batzuk. Bezeroak, batez ere, baliabideak marketin eta sustapenera bideratzen dituzten enpresak izaten dira, eta herri-erakundeak. Honelako zerbitzuetarako sektorerik garrantzitsuenak hauek dira: prestakuntza, ikus-entzunezkoen ekoizpena, publizitatea eta arte grafikoak.

Plan Operatiboa

□ *Kokapena*

Normalean erdialdeko bulegoetan edo sektoreari atxikitako enpresak jartzen diren aldeetan: parke teknologiko edo beste enpresa-zentro batzuen kasua izan daiteke, baita industrialdeena ere. Diseinugile grafikoek sormena bultzatzeko baldintzak dituzten gunak balioesten dituzte (argia, ikuspegi irekiak, paisaia).

□ *Eremua*

50 m²-tik aurrera. Dena den, ekoizpen eta diseinurako, harrera-zerbitzuetarako eta bilera-bulegoa jartzeko leku banatuak izatea komeni da.

□ *Ekipamendua*

Bulegorako behar denaz gain, telekomunikazioetako instalazioak bereziki zaindu behar ditugu (ADSL, kable, etab.). Irudiaren eta informazioaren prozesurako tresnerian inbertitu behar da (eskaner, kamera digital, inprimagailu, ordenagailu) baita multimedia-produktuak garatzeko, web gunek diseinatzeko, material grafikoa egiteko eta abarretarako software-baimenetan ere.

Giza baliabideen plana

Diseinugile grafikoak, programatzaileak (Flash, Java, html...) eta multimedia-aplikazioetarako teknikariak izatea komeni da, baita beharrezko administrazio-langileak eta saltzaileak ere, enpresaren tamainaren arabera. Badira lanbide-heziketako titulazioak, diseinu grafiko eta multimediatara bideratuak, bai goimailakoak (arte ederrak, ikus-entzunezko komunikazioa eta arte grafikoak) eta erdi-mailakoak (publizitate grafikoa, irudiztatzea, argazkigintza artistikoa).

Inbertsio-plana

24.000 eurotatik aurrera. Dena den, negozioa abian jarri aurretik inbertsio-plana egitea komeni da eta finantzaketa-iturriak zehaztea.

Garapen-en elkartutako agentzietan autoenplegurako orientabide- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen dira.

<http://www.garapen.net>

Administrazio-izapideak

EAE: Administrazio-prozedura hauek jarduera bat abian jartzeko sektoreka dauden laguntzak eta egin beharreko izapideak azaltzen dituzte.

<http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?Cmd=listarAyudas&lenguaje=es>
<http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?lenguaje=es&EstadoVigencia=1>

Enpresa bat sortzeko informazio osoa

<http://www.creaciondempresas.com/>

Laguntzak, diru-laguntzak eta bekak

Espainia. Herri Administrazioen Ministerioa.

Estatuko Administrazio Orokorrak eta Autonomia Erkidegoek deitutako laguntza, diru-laguntza, beka eta sariei buruzko kontsulta lagundua, baita Europako Batasunak eta Toki Administrazioak deituriko batzuei buruzkoa ere.

IDEIAK ETA ARRAKASTAREN GAKOAK

❑ *Sormena eta orijinaltasuna*

Negozioaren lehengaia da. Lehen mailako sortzaileak izatea nahitaezkoa da arrakastarako.

❑ *Trena ez galtzea*

Diseinu grafiko eta multimedien arloan teknologia berrien jakitun izan behar da. Duela 2 urte iraultzaileak ziren teknikak gaur egun zaharkituta daude. Arlo honetan, beste edozeinetan baino gehiago, erritmo ezin biziagoan gertatzen dira bilakaera eta aldaketa. Etengabeko prestakuntzak eta sarean nabigatzeak eguneratuta egoteko aukera emango digute.

HELBIDE INTERESGARRIAK

Atariak / Web-ak:

Alabrent: Arte Grafikoen ataria

Arte Grafikoak on line: arte grafikoetako aldizkari digitalak (*Offset, Serigrafía y Envase y embalaje*)

Gutenberg-e.com: Mundu Grafiko, Publishing & Media-ko ataria

Industria Grafikoa: Arte Grafikoetan espezializaturiko ataria

http://www.fcavn.es/f_sector_47.html

<http://www.guiame.net/flash/artesgraficas.html>

Graphispack-en elkartutako enpresen datu-basea

Aspack-eko kide eta bazkide diren enpresen direktorioa

Sektore Grafikoko Hornitzaileen Direktorioa (Aedes)

Sektore Grafikoko Joeren Txostena (Fira de Barcelona. Departament d'Estudis)

Inprimatze Digitalaren eta Serigrafiaren Sektorea Espainian (Fira de Barcelona.

Departament d'Estudis)